

DR!XE^Pren eskutitzak CHI]

Atzennirik **Euskalerrira**

Edo Zaragoza'tik Lazkaora. Onezkero irakurleak badaki emen aitatzen dan Zaragoza au ezala Aragoikoa, Ameriketakoa baizik, eta Ameriketan El Salvador'ekoa. An utzi genuen Orixe okullu-lanetan eta luma-lanetan, bein lumaz idazten, eta bein okulluko tresnen bati eskua ezarrita. Bein ezpatari bein lumari eltzen zion Erzilla gudari eta olerkaria baino askoz jatorrago, benetan. Ez al da egia?

Piskaka-piskaka *etxeta abiatzeko* bideak irikitzen zaizkio. Baina ez etxeko pake-giroan murgiltzeko, Jainkoaren eta euskereraren aide lan egiteko aukera obeen billa baizik. Lazkaoko Beneditarrak eta Maritxu Barriola ez daude geldi. Eztute pakerik izango, Orixe Euskalerrira ekarri eta idaz-lanari osoan lotuta jarri arte. Gauzak, itxuraz, ez dira gaizki atera. Orixe Lazkaoko Beneditarrean artu dute, idazteko aukera osoan, eta diru-laguntza ere lasai xamar duela. Au ere argi geldi bedi, Zaitegiren eskutitzean irakurtzen dana oker uler ez dedin. Lazkaoko ostatua ez du Orixek ordaintzen; bestek ordaintzen diote ango egona eta lana.

«Jainkoaren Billa» eta S. Agustiiien *Aitorkizunak* aurrera dijoaz. Gainera, *Breviartum Totun* euskeratzeko lana. Eta guzti au gutxi dala edo, Olabideren Biblia argitaratzeko lana ez dute, bada, gainean artu?

Orixek eta Oiartzabal jaunak eskubide zutela uste zuten Olabideren lana argitatzeko esku artzeko, euskeratzerakoan ere lankide izan

zirala-ta. Erromara ere jo zuten jesuiten Nagusiengana. Orduan berotu ziran, nonbait, jesuitok, Forraosatik aita Etxeberrria ekarrira, Olabideren Ian ori argitaratzeko. Orixerentzat ortik pakea. Baina bai naigabe piska ere.

Orixeren eskutitzen geigarri, oraingoan, beste iru-lau sartzen ditugu, Zaitegi zanarenak. Orrela «Euzko-Gogoa» aldizkariko *irukotea beingo*z batera daukagu emen, eta gai berdintsuei eragiten: Aita Ola bideren Biblia, Bidalien Eginak, O. ta O.-ren euskal-gramatika (Orixe ta Oiartzabalena, alegia, elkarrekin zekarten gramatika-lana, euskeraz «Euzko-Gogoa» argitaratzen asia, eta 1963n erderaz Donostian emana), eta beti ere lan-asmo berriak. Aurreko eskutitzetan esandakoen geigarri eta osagarri ez datoz gaizki, guk uste.

Azkenengoa, uttez, askotxo geroagokoa bada ere, aurrekoen gai-barruan dabil, eta Zaitegiren adiskide eta lan-biltzaillek atsegiiiez irakurriko dautelakoan gaude. Olabide euskera ikastera eta lantzeraz nola itzuli zan omen da argiegi azaltzen Zaitegik or aztertzen duen lanean (*Jaunaren Deian* euskerazko bibli-itzulpenez egindako lanean, alegia). Nik esango nuke Zaitegiren iritziak eta *Jaunaren Deian* azaldutakoak elkarrekin konpondu ezizirik ez dutela. *Jaunaren Deia* ortan esanak ere Olabide aitari entzuketik ateratakoak dira. Luis Agirre apaizak, bere gaztetan, Arantzazun entzuketik, ain zuzen.

Emen Zaitegik esaten digunez, orraitio, Orixe ere aurkeztu zan Gazteizko lore-joko aietara (gerrate-aurretxoan), Olabideren omenezko lanen batekin. Eskutitz onek ematen digu berri jakingarri au. Baiia Luis Agirrek, geroxeagoko ene espetxe-lagunak, irabazi.

L. A.

Zaragoza'tik 1954-111-19 gn.

Adiskide aundi: Iarrai zakiola obekitze orri. Ez duzuke, agian, urraketa bearrik. Etxe ori ezaguna dut. Bein A. Beobide'k bazkaritara eraman nindun. Or doatzu Aitorkizunen amaia. Dudatxo batzuk ba-dauzkat, kopia liburutik gabe atera baitut eskuzko zirriborroetatik. X, XI, XII'garren iardudunak, nere ustez, obekienik. XIII'garrena zaila da latinez ere, ta zail gelditzen da —besterik ezin— euskeraz ere. Idu-ripeko: coelum, coelum coeli, terra, pisces, volatilia, zerua, emengo Eliza, Apostoluak, kristau zintzo ta abar. Beste Agustin bat bear du art iarraitzeko. Laister bilduko ote naiz nere paperetara: Orain Mari-ixu Barriolak Donostian Ian egiteko aukera ipinten dit, eguarte,

atsaldean nere esku geldizent naizala. «Breviarium totum» nai luke. Kopia aterako omen ditidate. Gure etxeoandrea New Orleans'en da alaba zaitzen gaixoetxean, eta gaur bertan galdetzen diot zer idurl zaion. Zuk ioateko diozu, noski. Labaien'ek ere bai. Ikusiko.

ZENBAIT ITZ

Eite=forma (eitegabe=informe).

Antolagabe=incompositum.

Mukulu, mokor=cuerpo (no precisamente organizado).

Ortzantza=firmamento. (Uitzi'n, osantza).

Mukuluki=corporal (de natura corporis).

Gogaki=espiritual (de natura spiritus).

Gogakoi=espiirtual (persona).

Goraintzi augustindar on oieri.

Memento.

NIKOLA

Zaragoza'tik 1954-IV-12gn.

Adiskide aundi: Datoren gabontllaren 12gn beteko ditut lau urte, I. L. onara etorririk, eta egun ori aukeratu dut etxera itzultzeko, gure etxeoandere onen baimenarekin.

Nik nerez naiago nuke Lazkau'ko beneditarren gela bat, Elizatxora ta Uburu-gelara eskubidearekin. Ayete'ra igaro al dira? Batere ez okerrago ordun.

Esan nizun «Breviarium totum» orren ori. Birlelo ta abar, itzak musikarekin uztartzen lagunduko lidateke. Non nindagoke an baiho obeki?

Oraingoz ez geiago. Onezkero etxera bildua uste zaitut Pazkoetarako.

Nere S. Agustin noizbait iritxiko al zaizu. «Impresos» antzean igorri nizun, eta zertifikatzerik ez dute emen ontzat artzen.

Duzula osasun eta Pazko on etxeko guziekin.

Memento.

NIKOLA

*Finca Miramar, Zaragoza, 3 de Septiembre de 1954. (Bigarren kopia).
R.P. P. Leturia S. J.
Roma.*

*Carisimo en Cristo P. Perico: De vuelta a Roma habrd Vd. ha-
Uado ahí mis dos respuestas a su consulta: una directa, y otra por
medio del P. Eusebio, sirviendome el de asesor. Entretanto otra cosa
me ha ocurrido de interes para los Jesuitas, para nuestro pueblo y para
nosotros sus dos amigos D. Martin Oiarzabal y yo. Nosotros dos so-
mos, por decirlo asi, los herederos o colaboradores en el Antiguo Tes-
tamento del P. Olabide, ya terminado de traducir, pero que necesita
algunas correcciones, notas y prologo, para lo cual suministraríamos
nosotros material, de modo que entregariamos la obra ya ultimada
para la imprenta, salvo las notas que exige el Canon, de las cuales y
del Prologo se pudieran encargar ustedes.*

*Entre los anos 1938-40 estuvimos dos temporadas en Toulouse
donde el residia, corrigiendo y confrontando, y nadie como nosotros
dos sabe las ultimas tendencias del finado en las correcciones, algunas
de las cuales se hallaran en papeles sueltos intercalados de nuestra le-
tra, y otras que nos autorizo hacer de palabra. Ultimamente, a cual-
quiera indicacion linguistica que le haciamos, «ale, ale» respondia;
«pongalo asi». Seria lastima que esa obra cayese en otras manos. Don
Martin es el mas acreedor en esto, pues a sus expensas fueron el viaje
de los dos y la estancia en el Hotel, y SI ponia el papel etc., para las
cinco copias que le ibamos sacando. En Toulouse estardn, si no las ban
trasladado a Castilla, dos copias manuscritas de toda la Biblia, salvo
algun cuaderno de la primera copia que guarda D. Martin, y dos o tres
libros in folio de versiones hebraicas antiguas, una de ellas de un ju-
dio heterodoxo (no recuerdo si es Reina), que pertenece a D. Isaac
Lopez de Mendizabal. Debe de ser unico ejemplar en nuestro Pais.*

*Es de considerar tambien que esta Biblia inedita y estos libros
eran ya res derelicta y destruida, a no ser por lo que le dire: Estando
el P. Olabide en Bilbao, tuvo noticia del bombardeo de Guernica, y
«ay, mi Biblia!» exclamo. Don Doroteo Ciaurriz tomo inmediatamente
su automovil y pudo rescatar ese precioso material de entre las lla-
mas, pues la casa estaba ardiendo por los cuatro costados.*

*Esto expuesto, ^serla mucho pedir a la Compania, que ese ma-
terial fuese trasladado, mientras nosotros preparamos la edicion, con
todas las garantias del caso, al Monasterio de Benedictinos de Lazcano,*

quedando alii en deposito unicamente el tiempo que nosotros lo necesitamos? Tambien hay el medio de sacar fotocopia, pero no creo que haga falta si le merecemos suficiente solvencia. Necesitaremos tambien los libros adjuntos para las referencias y notas.

A ver, pues, P. Perico, si activa Vd. este asunto cerca del P. General, de modo que para cuando nosotros podamos ir —ya le dije en mi anterior que yo me hospedaria alii desde a principios de 1955— encontremos alii manuscritos, copia, y libros auxiliares adjuntos.

XJn memento por su Ajfmo. en C. J.

{emen izena).

Agur D. Martin: Ez d zaizu gaizki idurituko nere eskutitzori. Lazkau'n nere zai omen daude. Aita Nagusiak oso atsegin erantzun zidan. Nere ondoan asko ikasiko omen dute euskeraz.

Onezkero irakurri dituzu Aiorkizunetako iru iardunak; amaikagarrena errexa ta polita, bestek ez ain errexak. Latinez eta espaneraz ere illun gelditzen dira. Nik, beintzat, ditudanak egin ditut.

Osasunez? —Betiko ezueri onekin, erri onek oso gaizki artu nau ortan, asieratik. Bestela, osasunez erabat ondo.

Urrena arte.

Memento.

NIKOLA

Stromboli ontzitik {Balboa, Panama) 4-XI-54.

Oiartzabal'dar Martin iaun apaizari. Errosario'ra.

Adiskide aundi: Azken orduan, Guatemala'ra ioan-etorri, azken agur eta abar, ez nun astirik ukan irtetera nindoala gaztiratzeko. Ondo goaz lainkoari esker. Panama'ko itxas-lepoa igaroteko baimena eska tu dugu; baiha biar goiza arte geldiarazi gaitute. Egurdiko ordubatean iritxi gera onara. Emen bero gaitza, dakizunez. Ala ere gaur atsaldeon, enbata, itxasoan zabal gaudela. Urrengo egona Curacao'n egingo, ta andik zuzen Bilbaora. hen Bartzelonara zoon ustez, ontziau, bainan orain bidea aldatu du. Neretzat obe. Bein Caribe itxasoa iragan ezker, otzak asiko. Bizkor noa launari esker. Itxaso onek ez ote dit kenduko azkeneko ezueri kutsua? Garnu-odolak azertu ditidate, eta zuringo-

kirik ez (albumina negativo) eta gozokia ere (glucosa negativo). Baman urea zerbait odolean. Vitamina'en bidez iarriko omen naiz ondo, khri-oetatik omen bait a nere gaitza. Gainer a ura edan bear asko xamar. Gaiherantzean osasuna erabat bikaina, lainkoak ala naita.

Orobat opa dizut zuri ere, eta elkarren berri ba-dukegu. Aita Leturiak oraindik ez dit erantzun.

Goraintzi deneri.

NIKOLA

Lazkau'tik 1955 libel tzar en 21 gn.

Adiskide aundi: A. Leturia'k erantzun zion nere bigarrenari. Lenengoa ez omen zun iaso.

Castilla Oriental'go Provincial'ari ordun idazten ziola, ta (aita Leturia'ri) ederki iduri zitzaiola. Aita Azkona Asistenteak ere eskutitz ortan itz bi sartuko zitula «que era cosa razonable y de desearse», gure eskabidea. Baina A. Olabide zena Castilla Occidentals^ bialdu

irakusri zazute... «KA1MEL»

Irakurri-azi zazote «KARMEL»

«GURE ALDIZKAR1A»

«ZURE ERREBISTA»

«K A R M E L»

Urteko eskupekoa: 300 pta.

Zuzenbidea: Karmen, 2

E I B A R - G J P U Z K O A

omen date, A. Errandoneak esaten didanez; beraz ditekera da A. Le-turiarena kuku gelditu izatea. A. Errandoneari ere oso ederki derizkio. Bereala idatzi zidan egihalak egingo zitula. Provincial' a Ameriketara za-la, ta idatziko ziola. Itz onak eman ditute heintzat. Bitartean, esan oi-dana, «beti ha-dugu guk Mezaren luzagarria». Zu etortzerako eskuz-koa onera karraiatuko ba'genu, emen asko lagunduko Uguteke kopiak ateratzen eta.

Emen hero hero asi dira lanerako bideak egiten. A. Mauro atzo Paris'a ioana da imprenta polit bat erosteko asmoan (ONU'rena bezalako). Revista hat aterako omen genuke etxe ontan eta liburuak ere bat. Ederki nago emen. Gelan berogarria ipini didate.

Agustinen Aitorkizuneri bigarren eskua (azkenekoa) em at en ari naiz. Ba dauka bearra. Xabarraldi asko xamar dauzka.

Beraz, bazatorrela zu ere. Asko pozten gera. Aita Agapito emen da. Nitaz arreta aundia artzen du. Ni polikixago; oinazetik ez, esatekorik; loa nekez xamarra... Bestela, gizendu naiz eta itxura ederra daukat, sekuian baino ohea, ta osasuna ere bai. Pozten naiz zureak ere ongi izatearekin.

Goraintzi Augustin'dar oieri, eta

Memento.

NIKOLA

GEIGARRI: Zaitegi Plazaola Jokin'en lau eskutitz. Guatemala'tik 1955gko. Epailaren 27'garrenean. OartzahaVdar Martin Apaiz iaunari. Argentinara.

Apaizkide ta adiskide on: Aspaldi ezker, zure berririk ez tut. Osasunez onik egongo al zera lanean eten gabe ari izateko. «Euskalduna» orko aldizkarian irakurri izan ditut zure azalkizun mamitsuak irakurlearen irakasgarri, Berri Ona azalduki.

Onezkerok hadakizu: <Qrixek> on eta bizkorra Lazkaur'n bizi da otoitz ta Ian, laungoikoa ta euskera esku ta gogoan. Beneditarren etxean bizi da orrenbeste ordainduta. «Augustin gurenaren aitorkizunak» eta «Jaungoikoaren billa» idaztia antolatzen diardu. Bigarren idazti onen «Sarrera» ta lenengo atala laister emango ditugu gure aldizkarian.

Zu, adiskide, zertan ari zera? «Itun zarra» iruzkinez emateko antolatzen ari zerala egia ote da? Alako zerbait «Orixe»k esan zidalakoan nagokizu. Lan ori nola burutzen ari duzu? Arren bai arren azaldu idazu or en berri. Ni ere I tun zarrean murgiltzeko asmotan ari nauzu. Oraindik ezertxo ez dut egin, egia esan. Biok lan bera egin e*z-dezagun, zure erantzunaren zai nagokizu, nire lanari lotu bage.

Parantze'ko elertiaren edestia geurtz etnan nai nizuke irarkolarako. Amaituxe dut; badu oraindik orraztu bearra.

Aurten Sopokel'en antzerkiak (Wgarren idaztia) argitarazi nai nituke. Egumotan iarri omen dute salgai «Bidalien Eginak»: obeki esan il onen azkenean, habaicn'ek idatzi didanez.

Oraingoz besterik ez. Agindu K'ren baitan adiskide duzun

Zaitegi eta Plazaola'tar Jokin'i.

P.S. Olabide'ren «Itun zarra» osorik al duzu? Z.

Guatemala'tik 1952 gko. Dagonillaren 9'garrena.
Oartzabal'dar Martin Apaiz launari. Kosario'ra.

Apaizkide ta euskaltzale laztana:

Egun bertan eskuetara zait zure gutun ederra. Eskerrik asko. Baita eskerrik asko, ortik gaztigatu baitidate arpide-saria ordaindu duzula gure aldizkariaren aldera.

«Euskal-izherc»z diozuna berorixe esan nion Orixe'ri, orain ilia-bete El Salvador'ean. Bi aldaki ditu: bata aurrentzat, bestea ikasientzat; biotatik bat egin zezala aldizkarirako esan nion, oso ederki baitago. Egingo didalakoan nago. Ain zuzen ere, orain nere «Bidalien Eginak» idaztiaren itzaurrea egiten ari zait, gero, Zarautz'en argitaratzeko: nere euskeraren aberastasuna dala-ta, arriturik dago Orixe.

Orixe'ri bein eta berriz esan diot zuk ere gure aldizkarian idatzi bear zenula ta idaz-lanak eskatzeko. Ez al didazu zerbait argitaragarri bidaliko? Poz-pozik argitaraziko nizuke idazle bizkortzat baitzaitut. Non duzu «lanko ereslaria» ta abar, Estefania A. zanak euskeratuerazi zizuna? Agian besterik ba-duzu ondurik.

Idazle-mordo ederra dugu, noski, ta guzian buru Orixe andia:

egtn-eginean ere, Orixe orribiko eginda dago guztia Ameriketa'ko eguaroan ta inoiz bezin mardul idazten ari zaigu, osasuntsu ta bizkor.

Zure erantzunaren zai-zai nauzu.

Tori riire agurrik bizkorrena.

Agindu euskeraren onerako lainkoagan,

Zaitegi eta Plazaola'tar lokin'i.

Guatemala'tik 1952 garren Gabonillaren lena.

OiartzabaVdor Martin Apaiz jaunari. Argentina'ra.

*Adiskide ona: Azkenengoz igorri zenidan gutuna garaiz eskueta-
ra zait. Eskerrik asko. Iaso ote duzu «Euzko-Gogoa» 1952g. urteko
3-4g. banakoa? Beste zenbakia egunotan ekarriko didate irarkolakoek.*

*Illabete ontan, Gabonetan, Orixe'rekin egoteko asmotan nauzu,
lainkoak onez; garai ortan emango dit Orixe'k zure idaz-lana, nik uste,
ta poz-pozik argitaraziko dizut.* •

*Ain zuzen ere, nire paper zar artean zure «Ianko ereslaria» ta bes-
te zerbait olerki arkitu ditu. On ba'deritzazu, aurrena gure aldizkarian
emango dut, ipuin ederra bait-da ta ederki euskeratua.*

*«Bidalien Eginak» idaztiari azken orraztua etnaten ari nauzu,
irarkolara bialtzeko. Itzaurrea Orixe'k idatzi dit. Nekez bada ere, au-
rrera goaz gure aldizkariakin, beaztopoak oro itzuriz.. laungoikoaren
aintzarik aundienerako ta euskeraren onerako bitez gure aleginak oro.*

*Tori nere euskal-agurrik kartsuena ta agindu euskeraren onerako
Iesu'gan,*

Zaitegi eta Plazaola'tar lokin'i

Arrasate'tik 1973gko. Urtarrillak 15.

L Akesolo K-O agurgarriari. Markinara.

*Aita Agurgarria: Pozarren irakurri dizut azkenengo Jaunaren
Deian eman duzun idazlana: zeatz, zorrotz eta iakintsu zatoz, oi duzu-
nez, mende ontako gure Bibli-itzulpenak gaitzat artuta. Zorionak biotz-
•biotzez.*

Geure arteko lagun-iardunaldi ontan bidezko ote zait geigarririk

*edo zure lana irakurri-ala buruak eman didanik adieraztea? Baietz us-
te dut, nik neuk beintzat, gogo oneko gizon zeran ezkeru.*

Oarrok edo diralazkoak zeure lanari iarraiki ezarri nai dizkitzut.

*309g. orrian Orixeren Urteko Meza bezperak aipatzen duzu. Ez
al deritzazu Orixek Olabideren Itun zahar eta Berria erabili zituenik
liburu ortako epistolak eta berri onak ematerakoan? Bekaldera itzazn
ta auxe ikusiko duzu: zer bait ikutu edo aldatu arren, bearrean Olab-
bideren itzulpena dago. Orixek berak esan zidanez, Olabideri zor zion
begiruneak ortaratu omen zuen.*

*Orrialde bertan «Zaitegi-ren Apostoluen Eginak» aipatu besterik
eztuzu egiten. Zeure-zeure irifzia iakiteko gosez utzi nauzu, liburu ori
dala-ta. Or ezarri dizut orduan on-naiezko zenbait iritzi iaso nituen
orritxo.*

*Galdosen Dabiden abestietan ez al duzu Olabideren eraginik ikusi
nolarebait? Gogoratzen naizenez, Etxeberriak eta neuk lagundu genion
Galdosi Ian ortan. Nik neuk bein btino geiagotan esan izan nion neure
irakasle zanari: Olabidek onetara iarriko luke ta beralakoan iaso oi
zuen nik esana. Dana dala, Galdosen beraren lana dugu;*

*312g. orrialdean Orixeren itzulpen-lana aipatzen duzu Jesusen
Biotzaren Deyan: «an argitaratutako lanik aundiena itzulpen-lana du:
joanen Ebangelioaren 16 kapitulu», diozu. Zer esan nai ote du lanik
aundien orrek? Eztakit are an. Beste batzuen ustez oberik eman zuen
Orixek J. B. Deyan. Txori galdua, Bidea, Argia, Egia, Artzaina naiz ni
eztira gutxiagokoak. Mokoroak bein esan zidanez, Orixek idatzi ditue-
nik lanik ederrenak.*

*Bene tan Ebangliaoak laurak euskeratu ere egin ote zituen Orixek
jesuiten arteko zaneakoan? Dubitat Augustinus. Ortaz lenengoetako
Euzko-Gogoetan art izan zanean, nik neuk enuen gauza garbirik atera
al izan. Egia esateko, ezezkoan lotu nintzan. Geroago, bai, euskeratu
zituen.*

*314g. orrialdean Areitio Durangoko semea aipatzen duzu. Auxe
gaineratu nai nizuke: Asieran ez, baina Loiolara zuteneko aren itzul-
penean Olabideren aztarnak ageri-agerian dira. Olabidek bere Itun
Berria argitarazteke zuen oraindik, baina Olabidek berak berari utzita.
Garai artako Areitio-ren bizkaiera osoagoturik agert da, Olabideren
eragitez, eskierrik nago.*

Olabiderena: Euzko-Gogoak banako berezia eskeini zion Olabide

zanari. Okerrean ezpanago, eztut uste Olabidek «Leon-en jarraiu eta bukatu» idatzi dezakezunik.

Aren euskerara biurkera errazegi ematen duzu. Berari entzunda auxe dakit. Kanpionek bere gramatikaren sarreran diona irakurri-ala, here burutik ere euskaldun motz izatearen lotsaria kendu-naia sortu omen zitzaion. Gogoratzen naizenez, Madridedeko lege-etxean euskerarik ez iakitea arpegiz arpegi iauki omen zion erdaldun batek. «Ezetz one-lakorik iauki emendik 6 ilabetera», erantzun gure Kanpionek. Esan eta egin. Euskera ikasi ta Gramatika argitarazi egin zuen nafarrak ere. Ori izan zuen ergaile gure Olabidek, berari entzunda gera, erekin bate-ra iru urte aunditan Loiolan bizi izatea egokitu baitzitzaigun, lainkoak onez.

Villasanteri bota diozun ziztada ederrik dago, eta zuzen, gizona.

Itun Berria berriz eta berriz itzuli zuen gure Olabidek, Guate-malako E.G.-« Orixek adierazi zuenez.

Itun Berria argitaratu-ala, aren aldeko iritzia Orixek eman ziola-koan nago, ez nago eskierrik, nere paperak Baionan dauzkat-eta. Baina orduko Euzkadi egunerokoa aztertu-bearra zenduke... Iraizoz'ena ger-tatu bezala dakartzu.

Gazteiz'ko norgeiagoko artara Orixek ere io zuen eta Agirrek ira-bazi. Agirrereren Ian ori nun aurkitu ote dezaket? Esaidazu mesedez.

Itun-zaar eta Berriarena. Guatemalako 'E.G.-an, Andimak eta biok Itun Zaarra, Olabiderena, ematen asiak ginan, adibidez, Abestirik Bi-kainena: nik sarrera, gero Olabideren itzulpena, ta Andimak aren iz-teria, lot an baikenduen Olabideren itzulpena: garai bere an Orixek ida-tzi zion Jesusen Lagundiko barruti-nagusiari, ortarako bere eskubidea erakutsiz. Erantzun ere etzioten egin, baina orduan artu zuten nagu-siok argitarazteko erabakia, Etxeberria Formosatik Euskadiratuta.

Lafitteren eta Mitxelenaren iritziak ongi zeaztu dituzu eta inoren beldurrik gabe. Olabideren oi ez bezalako lana aztertuta gero, Mitxe-lenaren iritziaren aurrean oilartuta ari zera zuzen eta bidez.

Erabat esan: artu nere zorionik beroenak biotz-biotzez, zure Ian ederra dala-ta.

Oraingoz besterik ez. Goraintziak orkoei.

Jesukristogan apaizkide
Zaitegi eta Plazaola'tar lokin.